

JUNDANE JAKOBE HANDIAREN TRAGERIA¹

LA TRAGEDIE DE ST JACQUES²

f1	2 ^a Compagnia
Noms des acteurs³	
1 Compagnie.	Fernando, Daramie, Rodrigues, 96 La reigne Pascaline, La Vierge, Issabelle, Elisabet, 36 Catherine, Graçinne, Pascaline (gm) 38 Beterine, Christine, Maria Antonia, Balençiana, 45 Diego, Samuel, Auguste, Diego eveque, 46
St Jacques, 305 et les deux anges ensemble tien 8 vers, Grabiell 13	

1. BNP, FCB, n^o 211. Laburdurak: Ba (Baiona); Bo (Bordele); P (Paris); MS (eskuzkribua); m (mintza); gm (gainmarratua); ... (ezin irakurria); () Bordeleko eskuzkribuaz osatua; ^o (dudazko irakurketa).

2. Horixe da Pariseko eskuzkribuaren bigarren folioak buruan dakarren titulua, eta bordelekoak zaspigarrenean beste osatuago hau ematen digu, **Tragedie composee sur l'arrivee de St Jacques le majeur et sur miracles qui arriverent depuis qu'il estoit mort.**

3. Bo. 100-101: Le double emploi ou la maniere de ranger tant vers / particul, simples seules ou doubles. / St Jacques seul ...405 vers / George, Hermogene et gm...62 / Le roi Herodes et le roi aumirate turq...60-14 / Atanase, Josias, Servieto et gm 68 / Premier prologue, le roi Fernando et Colpior...107 / Theodore leveque et Theodoriq Pedro...58 / Theocrite, Soliman et le prevot...49 / Philippe, Theodoriq, l'aveugle Guilos Sre...52 / Lisias, Sadan et le roi Atenor ...35 / Robert, Mahome et Antonio ...32 / Tabor, Casapuerto et Caliran...36 / Abiatall grand prêtre ...60 / Ramire roy turcat et gm Rodrigos...62-84 / Isica et le roy Alphonse...36 / St Jean et Euphrase...30 / Alexis et Second...70 / Abiatall Sacalan et Sorporal...65 / Pierre et Indaleça Teodoriq paralisatia ...32 / Thesiphon François et ...Fereo 34 / Theodore leveque...50 / La vierge, Pascalina reine D'Espagne...25-38 / Dame Catrina et dame Gracinne...22-57 / Dame Betrina et dame Christine...35-46. // 1520.// La premier arrivee: St Jacques et la Vierge dans un rang separé et les ranges étroitesse avec eux. / A la suite deux second rang: Fernando roy, Pascaline reine, Phillippe, Diego, Turcat, Isica, Euphrase, Second, Indaleça, Tesiphon, Athanase, George et Ciprian. / Second arrivee: Le roi Herodes, R..., Tabor, Abiatall, Josias, Samuel, Lisias, Themocrite, Hermogena, Filleta, Laveugle / 3eme arrivee qui vie...theatre: Amuratta roy, Soliman, Sedan, Mahome, Cassafuerto et Sacalan / 4eme compagnie qui vie... aussi a la suite de 3eme arrivee mais separée: Ramira roy, Diego, Carlos, St Jean, Pierre, Francisco, Dama Betrina, Dama Catrina qui entre...Grand theatre. Il convient detre sur...autre arrivee tant pour abreger que pour rendre lo mer...face.

Isica, Le roy Alfonse, Carlos, 51
Euphrase, St Jn, Antonio, 50
Second, Alexis, 59
Indaleça, Carles, Pierra, 35
Theophem, François, Ferreo, 43
Theodora, Pedro, Paralesiatia, Theodoriq, 52
Athanasia, Josias, 52
Philippe, Dominique, Segretaria, 77

3e compagna

Hesias, Horto, Herodes, Maroq, Athemar, 101
Thenorita, Soliman, Prevosta, Gendarma, Solido ...
Lisias, Sedan, Arechan ...
Robert, Bahoma, Roba, George ...
Uxia, Tabor, Frisco, Serviето, ...
Abital, Sacalan, Serporal, ...

4me compagne

Satan seul, 73,
Filleta

f1v

...sognu
...Jacques seul
...anges
...Fernande, Daramie et Rodrigue
...reigne Pascaline, la vierge, Isabelle, Elisabet
...Catrine et Graçinne

...Christine
...Diego, Samuel
...le roi Alfonçe
...St Jean
...Alexis
... gm, Carles, Pierre
... Fereo
... Pedro, Paralasiatia, Theodoriq
... Josias
... Philippe, Domingue, gm, secretaire

...3e

...Herodes
...Athemont, Soliman, Prevot
...Sedan, le roi Athemar...
...Mahome, gm, Roda, Georga
...Tabor, Frisco, Serviето, Caleran, gm,
...Sacalan et Serporal, Cristero...

...Tragedie de

... SAINT JACQUES

... app. a

... Jn Bte Saffores...

...rtenant à

...Saffores.

f.2r

**La Tragedie de St Jacques
Le premier Prologue**

- | | |
|--|---|
| <p>1. Coumpagna ouhouratia
salutaçen çutiet
egun houn eta gincouaren gracia
desiratçen deiçiet.</p> <p>2. Çien presençiala egun
incapauleriq houna niz
istoria egulazco batez
çier minçatu nahiz.</p> <p>3. Eta istorian diradientaq
oro eguiad dirate,
beste çounbaiteq beçala gueçurriq
ez fablaricq ezte.</p> <p>4. Jouandane Jacobe handia
Jesus Christen apostolia
Espagnaco patrou Stu harez
dateque egunco materia. <i>Paseya</i></p> <p>5. Joundane Jacobe handia
Js Cten apostolia
Zebedeia eta Maria Salomearen semia
Joundane Jouhane evangelistaren anaya.</p> <p>6. Egun batez barssa batetan
aita eta anaya arançun çiren
itchaso oundo hartan gainti
Js Cte igaran içan çen.</p> <p>7. Ordian Jseq eran çeren
bere dicipulu çutiela nahî
mementouan sinhexi çien
eta jouan harequi.</p> <p>8. Joundane Phetiriarieriaricq landan Jsen
familier eta intimouenetariq çiren
favori eta gaiça handiricq
haier comunicatu çeren.</p> <p>9. Signagageco princiaren alhaba
ikhousi çian reçucitaçen
eta divinitarteco glorian
Tabouraco bortun gaignian.</p> <p>10. Getsemaneco baratçian
oracionia eran çianian</p> | <p>hirour houraq Jesusequi
han present çiradian.</p> <p>11. Ikhousi çien cruçificatçen
eta resuçitaçen
bena hayetariq deusere
eztugu representaçen.</p> <p>12. Çeren ezpeiquirade gu
Jesusen representatçeco capaule
hori dela causa populia
ecin ausartçen guirade.</p> <p>13. Bena apostolien ispiritu saintia
recevitu çianian
alde hanitçetara pheredicatçera
distribuatü çiradian.</p> <p>14. Goure representaçionia aren
hassiricq içan duçie
nouiz eta Jerusalem
St Jacobe beitçian pheredicatu.</p> <p>15. Eta Espaignaco hirialaco
içan çen haitatu
itchasoua trevesaturicq hara
içan çicun heltu.</p> <p>16. Hassi çicun Jesusen
legue saindua pheredicatçen
eta (salvamenduzco bidiaz)⁴
hanco populia instruitçen.</p> <p>17. Beste hayequi (Torcat)
Secon (Indalessa Tessiphon)
Theodosa eta (Athanasa)
Isiça eta Euphrasa.</p> <p>18. Çaracococo aphonescupu
Athanasa eguin (cian)
eta Theodosa (aldiz)
aphez ordenatu (cian).</p> <p>19. Dembora hartan (Virgina Sta)
lurian beitçen biciricq
Josephazeco (pillar batetan)
aguertu ceyen (ainguriez unguraturic)</p> |
|--|---|

4. Pariseko eskuzkribuaren hutsak. Bordelekoaz osatu dira eta parentesi artean idatzi

20. Noiz eta (bere discipulieki)
ari (beitcen othoiçetan)
ulhunçe (batez precisqui)
Hebro(co uhaitçaren khantian).
21. Harmonia (handi batetan)
celuco (ezpiritiq)
Virginaren (khantian cirelariq
çelieta(co ainguriaq).
22. Jac(obe handiaq cian bertan)
Vir(gina sacratia eçagutu)
Eta (haren salutaçeco)
Ber(tan cen belharicatu).
23. Virg(ina Mariaq eran ceron)
ordi(an cen leqhu berian)
elis(a bat haren ouhouretan)
b(asti eraçi leçan).
24. Dio(xolariq bacequiala hiri houra)
har(entaco devot çela içanen)
eta (ordian daniq ciala)
Be(re proteccionian harçen).
25. De(ligenqui cian Jacobec)
m(anu harez obeditu)
e(ta bertan içan çuçun han)
c(hapela eder bat bastitu).
26. N(oun orano han beita)
renomia (handitacoriq)
mundu han(itç hara jouaiten)
devotionez (alde orotariq).
- f.2v
27. (Hantiq) içan çuçun guero
(jouan) Jerusalemera
(misterio) divinouez
(han) pheredicatera.
28. Hanitz mundu çuçun
fediala converti erasten
eta relegione catolicoua
besarca erasten.
29. (Js) Ct eta haren doctrina
cialacoz aiphatu
judiouaq çutuçun
huillant erabiatu.
30. (Re)solitu uckhen çuçun
Jacoberen gal (eraztera)
cer nahi preciotan
haren (destruicera).
31. (Hermogena deiçen) çen
magiçient batequi
(bai) eta Filleta
(haren) mitilarequi.
32. (Arcordatu) çutuçun
(eta) eguin compositione
(behar) ciala confonditu Jacobe
eta devriez çalla eraçi ere.
33. (Hermogenaq) igorri çian
(Filleta) bere dicipulia
(eta) harez eraguin Jacoberi
(lehen) atacatcia.
34. (Bena apostoliaren) arapostieq
(Filleta çien iqha)ratu
(bai eta eçin h)aboro
(confus errendatu).
35. (Hareq eguin miracuill)iez
(hanitz çuçun adm)ratu
(eta convertituriq ha)ren
(belhainetara belhar)icatu.
36. (Hermogena bere buruçaguia)
(converticera exortatu)
(bena erravian eçaririq)
(Filleta cian charmatu).
37. (Bere jakite diabolicaz)
(incantatu cian uqhen)
(ihoulere cen guisaz)
(eçin beiçen coticatcen).
38. (Bena Jacobe saintiaq)
(boucanas bat igorririq)
(bertan içan çuçun)
(charma hartariq livraturiq).
39. (Hermogenaq çutian)
(devriq manhatu uqhen)
(Jacobe eta Filleta garotatu)riq
(behar ceitçela ekha)rrı.
40. Bena apostoliaren aiticiniala
estecaturiq bera cien ereman
eta Filleta Hermogena
baliatu içan çen han.
41. Js Nazaretan içenian
bere buruçaguia laçhatu çian
bai eta eçari
mementouan libertatian.

42. Hermogena ičan çen
guisa harez loxatu
apostoliaren khantuti
ezpeitçen nahi huruntu.
43. Debríaq bidian
balin baçien edireiten
loxaz gal eraci
edo erho loçen.
44. Bena apostoliaq bere makhila
eman ceron bertariq
eran ceron joan ledin harequi
eta etçuquiela langeriq.
45. Moyen haren ičan çen
Hermogena convertitu
bai etare jarri
apostoliaren discipulu.
46. Eranaraci ukhen çütian
bere magia libriaq
bai etare eçagutu
debriaren rusa guciaq.
47. Espedient houra auher cela
judioueq iqhousi çianian
beste bati recours
uqhen cian mementian.
48. Romanouaq garnisouco bi capitagni
çiradian hersatu
bai etare hayequi
seriousqui hitçartu.
49. Apostoliaq pheredicatcen çianian
billasca bat çuela phiztuçen
eta bere soldadouequi
Jacobe arastaturen.
50. Abital aphez handiaq
signal bat eguin cianian
apostolu saintiari
lothu ciradian.
51. Josias scribo fakxia
leheniq ceyon lothu
Lisias eta Teocrita capitaina
hari bertan juntatu.
52. Khorda bat lepoti
çerion estecatu
- f.3r
53. Erregue gaisto hareq populiari
placer eguiteco
buriaren mouztera
coundenatu çien guero.
54. Josias leheniq lotçalia
içan çen convertitu
Js Ct ginco cela
ere bai confesatu.
55. Apostolu saintiari
galthatu parcamentu
popat machelan eguiniq
hareq gogoti pharcatu.
56. Bere discipuliaq hil gabe
manhatu ukhen çian
hil oundouan sar leçen
ouñçi baten barmian.
57. Eta eçaririq ouñçi hartan
çiradian abiatu
eta itchasso medilianoua
bertan trebesatu.
58. Gibassareco hersidura
igaran çienian
itchasso oççeanian
sarthu çiradian.
59. Eta Galiciaco routa
izartan dehordatu
eta hiri haren jountouan
içan çiren phausatu.
60. Bederatçu ehun ourthez
han egon ičan çen
ceren eta resolitione
handiriq ičan beitçen.
61. Stu glorius haren
intercessionarequi
Espagnaco erreguer gincouaq
eguin du hanitz favori.
62. Evangeliouzco eguiez
leheniq esclaritu
eta guerla hanitchetan
guero soccoritu.

63. Morouer tribut infamu bat
Espaignaq behar beitçian phacatu
çorthez haitaturiq ehun nescatila
ourthe oroz delivratu.
64. Azquenecoz Espaigna
içan çuçun defendatu
eta ordian moroueq
guerlan attaccatu.
65. Bataillaq galduriq espagnoulaq
bortuan gora joan ihesi
galduriq çiradiela
exituriq ossoqui.
66. Erregue Daramira
Clamwigeaco bortian
othoiçetan jarri çen
beste resoursariq ezpeitçian.
67. Tristeriq eta affligituriq
gincoua çian othoitu
eta apostolu saintia
gayaz çeron aguertu.
68. Manhatu soldadouaq oro
litçan cofesa eraçi
eta comunione stia
ere ereçebi eraçi.
69. Guero morouen armada
bertan attaca leçen
gincouaren içena eta harena
çielariq invocatcen.
70. Çamari chouri batequi ginen çela
houra sokhorritçera
eta morouen armada
handiaren destruitçera.
71. Erho cien hirour hoguei(hamar eta)
milla beno haboro
eta Çaracoceco hiri
handia ere hartu (iro).
72. Beste halaco (favori bat)
equin çe(ren American)
nouiz (eta infidelen contre)
beit(ciradian bataillan).
73. St Do(mingan heltu)
çen (miracullia)
- gente (hounaq hala hala)
dathe (representatia).
74. Oilla(rsquaç guerrenety)
beit(ciradian jauçi)
et(a ediren St Dominica)
u(rkhabian biç).
75. (Eta nescatilla gazte)
(haren gal erasztia)
(remisioneriq gabe)
(içan urkhatia).
(Bara)
76. (Gente hounaq eniz)
minçatu (obragez baici)
nahi ga(bez çien)
ossoqui dev(eya eraci).
- f.3v
77. Beno ene laguneq hobequi
(çutie) baliman satifaturen
eta çien premesionarequi
hayen chercara niz jouanen.
- Fin.
- Satan⁵
78. Ala palaçio ederra
eta lecqu agradablia
cerbait besta handi
heben içanen da.
79. Admiraturiq nago
houni St egu...z
ene bihotçaq ezpeitaqui
... certain ... plazerez.
80. Behar dut bai egun
niq ounxa divertitu
Jupiter ene gincoua arauz
hiq nahi naiq favoritu.
81. Eztuca deus eraiten
cer othe duq phenxatcen
cerbait maliçetan
hari iz edireiten.

5. Sataneria hau (78-91) B-n falta da.

82. Goiti favorituren nayala
... enetaco bethi
... nen içala.

xx
83. ... çoua
... besoua
... n
...
84. ...
...
...
...
85. ...
...
...
...
86. ...
...
... ere
... ala.
87. Ni nuç Hemorgena
magiçien famatia
eta beste haur aldiz
Filleta ene mitil maitia.

Satan
88. Ounxa content nuç Hemorgena
ceren heben çutiedan edireiten
bi adisquide fidel
beitçutiet errecoutraçten.

Filleta
89. Avança çite Satan
eta sar triate hountan
aire bedera dança deçagun
hiroureq algarrequila.
90. Guero barascaitara
gutuçu berhala jouanen
gu etchera guireneco
gobernantaq beitu prestaturen.

Satan
91. Voila qui fet jaunaq
nahi niz avançatu
- alo sonu egulialq berhala
behar duçie aire bat sonatu.
- Retira. Jacques jalqui eta bellarica m.*
92. O ginco handia celiaren
eta lurraren creyaçalia
eta gaiça guçien
ez deusetariq eguliala.
93. Jesus Christ çoure semia
lurriala igorri duçu
nahi beitçunian guero
humanoua conserbatu.
94. Uçhen dit bonneura jauna
haren apostolu içateco
bai eta lurrin
harequilan eбилtequo.
95. Ikhousi niçun signagogeco
princiaren alhabaren remestiatçen
eta bere divinitatezco glorian
Taboraco bortun gaignen.
96. Getcemaneco baratceco
othoitu çuntian
Pierra eta Jouhanerequi
nun duçun haren presencian.
97. Ikhousi niçun crucificatçen
eta odolaren itchourtçen
jauna ene conserbatceco
hainbesteren sofritçen.
98. Eman deiçuçu sapiençia
eta jaquitate guçia
haren ounxa empletatceco
jauna emadaçu gracia.

(Bara)
- f.4r
99. Converti deçadan mundia
jauna çoure graçian
eta Jesusen amourioua
imita ahal deçadan.
100. Ichouri beitu odola
guiçounen conserbatceco
gal deçadan biçia
niç ere haren cerbutchuco.

101. Moyen harez egun batez
ikhous çitçadan çelian
laida eta adora
eternitate luçian.

Passéya m.
102. Jacobe gincouaren cerbutcharia
eta Js Cht jaunaren
hamabi tributez du osagari
vaque eta bonneur desiratçen.
103. Ene aurhide maitiaq afleçioneçatiq
ez tristecia besarca
ikhous eçaçie houla dela
alagrançiarene sujeta.
104. Çeren goure obren prefetçionia
pacentçian beita edireiten
eta perfeit eta complitu
halaz içan çitayen.
105. Eta çoumbaiteq çuhurtarçuna
manca badu berartan
bihotçez galtha gincouari
accordaturen du bertan.
106. Irous date tentaçionia
çouineq beitu soffritçen
çeren garaithu oundouan gincouaq
biciaren khoroua
beiterio emanen.
107. Badaquie behatçera
prount içaten ahal çirayela
bena berant minçatu eta
berant coleratu behar dela.
108. Çeren eta orano ahal
baçeraye segurtaçen
guuçounaren coleraq eziala
gincouaren colera complitçen.
109. Eta beharetan denaz
ukheçie pietate
nahi baduçie gincouaq
ukhen deçan çietçaz ere.

(Bara)
110. Bena pietate bici eta tachariq gabe
goure aita gincouaren aiticinian
111. Praube miserable haur direneq
caritate eguitia
eta munduco impunitateriq
ossoqui exemp içatia.
112. Eta praubia baduçie
chuti egoitera manhatçen
edo cerbait ere guisaz
hurrun egon erazten,
113. Çien bihotçez ordian
eztuçieya diferençia eguiten
eta phensamentu injustuz
jujamentu bat formatçen.
114. Gingo handiac eztunaz
oro bardin eguiten
bere eresoumaren eguiten
houra maite diener emaiten.
115. Eta cieq aldiz praubiaq
dutuçie mesperetçatçen
eta aberaxaq aldiz
orotan estimatçen.
116. Persouna diferençia eguiliaq
bekhatu du eguiten
repreñituriq dutien leguiaq
violatu dielacoz ukhen.
117. Eta gincouaren manietariq
bat dianaq hausten
oro haux balutu beçala
coupable da errendatçen.
118. Eta misericordiarq eta (caritateriq)
mundian e(zi)janaq egu(iten)
miseri(cordiarq gabe)
da (jujatu içanen).
119. E(çi praubie bilaçi bat)
i(çhouston baduçi hotçaq erhaiten)
e(ta gincouaq deiçula aro...
b(aderoçu ere eraiten).
120. H(otçaren berotçequo)
de(us ezpaderoçu emaiten)
çou(frè souhetez cer profieitu)
de(rie hari emaiten).

121. Eta (çuq duçulariq eman gabe)
h(otçaq badu erhaiten)
l(egua violaçen duçu eta)
h(aren hilçiaz coupable erendaçen).
122. E(ta cien mihiaq ene ...maitiaq)
e(duqui itçaçie tincaturiq)
e(z medisenciary prefera)
eta (gutiago calumniariq).
- f.4v
123. (Goure) mihia segurqui
(membra) chipi bat duçu
(bena khor)pitça oro teinturiq
(bicio courda) oro emflamatcen diçu.
124. (Su) ifemalaq dialacoz
(bera) emflamatcen
(eta) su eternal hora duçu
azquenecoz procura erazten.
125. Eta cieq aldiz aberaxac
(nigar) eta aflitione eguin eçaçie
ceren aflitione handiriq
aquituren beçaçie.
126. (Cien) houn handiaq
urhe eta cillar guciaq
diralaquo egun batez
(cien) countreco jaquiliaq.
127. (Devo)ra erazteco cien araguien
su eternalaren erdian
colerazco tresor eli bat dirate
segurqui azquen egun handian.
128. (Lan)guitçez miscandier duçie
(gal) eraci bere içerdia
(eta jaun)aren beharietara
(helçen da) hayen oyhia.
129. (Deliciozco) lur batetan
(içan ciradeye) bici
(cien mahaignaq) garnituriq
(eçinago) magnificoqui.
130. (Praubia) eta justoua condenatu
(eta gal) eraci duçie uqhen
(ceren) resistençariq
(ecin beician) eguiten.
131. (Eguin baduçie) cerbutchu behin ere
(cien hounen) emendatceco
(phaceraci) ducie praube hari
(biga edo) hirour batentaco.
132. (Hala eguile) aberax(aq)
(eztu merituriq eguiten)
(bena bai bere buria)
(ifernialat condenatcen).
133. (Arren othoi populia)
(gogoua eman eçaçie)
(eta gincouari soumis)
(othoi izan çitaye).
134. (Hari umilia citaye)
(eta galtha pharcamentu)
(eta praube hayer errenda)
(sobera duçiena thiratu).
135. (Gincouari misericordia galtha)
(debria coumbati eçaçie)
(resoluçione fermouan gincouac)
(grazia eguinen deiçie).
136. (Dolu uqhen eçaçie)
(beçhatu eguin guciez)
(bourhau, gueçur, arnegu)
(eta juramentu falbiez).
137. (Resoluçione handi bat harturiq)
(damuric baducie causatu)
(fitetz behar dutuciela)
(guciaq reparatu).
138. (Çieq praube gachouaq)
(harçen ducielariq paçençia)
(eta ofritcen gincouari)
(çien miseria gucia).
139. Penitençiataco daquieçien balia
acceptaturen beitçutie
bai eta miserian
soccorri emanen ere. (Has)
140. Niq eranen eguitera
oro çutiet exortatcen
eta çeluco gloria saintia
orori desiratçen.
- Retira. Jalqui berriz bellarica eta canta.*
141. Gincou jauna banouaçu
bidage handian
othoi jauna içan çite
enequilian bidian.
142. Itchaso handia dudan
igaran calmian

eta çoure leguia heda
Espagnaco lurrian.

143. Js Cten doctrinaz
oro instruituriq
hanco populia deçadan
eçar convertituriq.

144. Çoure gracia Stia
oroq jardixiriq
içan ahal ditian
guçiaq oro salbaturiq.

*Sar ouñçian hel beste buriala eta han ...
bellarico.*

145. Ginco jauna lagundu naiçu
itçhaso handian
eta maluriq batere gabe
eçarri lur idorrian.

146. Gin içan nuçu houna jauna
çoure obediteco
eta Jesus jaunaren
ordren executatçeco.

147. Ezpiritu saintia othoi
bethi argui neçaçu
ene ginco eguiazcoua
bethi lagunt neçaçu.

148. Ene ainguru beguiraria
ezpiritu dohaxiaq guçiaq
bethi itçaçie
eman çien arguiaq.

149. Jesusec enegati dian guero
ichouri bere odola qurutchian
ene bicia deçadan niq
fini haren cerbutchian.

150. Justo beita niq ere
hala gal deçadan ene biçia
çoure laidatçeco çelian
jauna eguidaçu graçia.

Jaiqui

151. Jauna banouaçü
hantçeco hiri hartara
çoure placera hala delariq
aphur bat repausatçera.

Retira

f. 5r

*Jalqui Fernando Pascalina reguigna Diego Isica
Euphrasa Second Indaleça Tesiphon Theodosa eta
Athanasia.*

Haur bat eçar Philipe eçar etçaniq.

Fernando m.

152. O ene adisquidiaq
eta sujet guçiaq
finitu behar nai
ni orai tristeciaq.

153. Haur maite haur cen
ene esperançha guçia
hain moule houn içan eta ezteya
estrange hounen houlatatçia.

154. Medecieq ahala oro
eguin dienian
eta bere eru bat dirateq
eçin sendo dienian.

155. Etçian harez asqui
guero noula dian uxutu
eremediouaq inutilqui
oro aldiz aplicatu.

156. Ene gincouaq naye arauz
cerbaitegatiq punitçen
eçin beitut hayen colera
ihoulere calmatçen.

157. Seraphisi eta Bali berhain
eraguin dut sacrificio
bena daquiçien beçala
inutilqui houraq oro.

158. Changriaq behar derit
orai idequi biçia
eta resoursariq gabe
quitatu mundia.

Pascalina

159. Bai Sira eguia duçu
sacrificio dugula eraguin ucquen
victimaq imola eraçi
ginco heben direnen.

160. Bai eta Jupiter handiaren
çelian den haren
bena ene avisa placer baduçu
jaquin eçaçu cer den.

Fernando
161. Minça cite ene espousa maitia
eta dioçut eguia
sendo ledin eta niroçu
eman resouma guçia.

Pascalina
162. Gingo houraq oro guç
çitiçu adoratçen
eta gingo eçagutu gabiri
ere bai gomendatçen.
163. Haren ouhouretan eztiçu
eguin sacrificioriq
ez eta ere batere
devotione particulariq.

Don Diego
164. Sira dama erreguinaç
arraçu ahal duçu
ezpequirade secula
ounxa hartara orhitu.
165. Gingo hareq eztielacoz besteç
beçain beste erribitu
gingo hora içan duçu
benturaz ofesatu.
166. Haren ouhouretan idi baten
sacrificiotan imolatçia
benturaz hora liqueçu
erremedio veritabla.

St Jacques *jalqui eta m.*
167. Sira pharca eçadaçie
othoi libertatia
çoure presençiala gitez
eta coumpagna guçia.
168. Çer phenan ciradian
içan nuçu instruituriq
eta orai h(obequi)
çien pla(gniaç ençuniq).
169. Çerbait (erremedio Sira)
benturaz niq banequiqueçu)
solam(ente plaçer)
baçitç(aitçat behatu).

Fernando m.
170. Nour (nahi beita içan)
houn(qui gin adisquidia)
uduri (citadaç deya)
emai(ten deitadala biçia).
171. Minça(di lehen beno lehen)
gogot(i nitçaiç behaturen)
bai (eta sendo erazten badiçu)
ihau(r ounxa phacaturen).
172. Ehun (mila talentez)
aberax (ait eguinen)
bai (eta cargu handi)
çounbaitez ouhouraturen).

f.5v
St Jacques
173. Sira, ençun dit noula
sacrificio eraguin duçun
eta gingo saldo bat
noula ouhouratçen duçun.
174. Eta gingo eçagutu gabiri
eguin eztiçielacoz
noula loxa çirayen
hux eguin duçielata hartacoz.
175. Çien sacrificiouda
oro auher duçu
çeren eta gingo houraq on
beitçiradian falxu.
176. Gingo eçagutu gabiri ere
auher çuqueçun eguitia
çer den noun den eta
çer den haren photeria.
177. Hartu placer baduçie atentione
niq deiciet esplicaturen
eta haren moyanez hora
menturaz sendoraçiren.
178. Gingo hora duçu aren
celiaren eta lurraren criyaçalia
gaiça guçien ororen
ezeusetariq eguitia.

- (Bara)
179. (Gin)couaq guiçouna hau
(ecari) çian certaco
(baratu) haren cultivatçeco
(eta) beguiratçeco.
180. (Gin)couaq eran çian guiçouna bera
(utci) dadin ezta comeni
(arren) diçogun eguin
lagun bat bera uduri.
181. Lo thiran batetan guiçoun hora
(ginco hounaq Adam) çipun eçari
(eta lo celariq çioçun)
(saihex eçur bat idoçui).
182. (Bena etciradian egon han)itz
(estatu irous hartan)
(çuhain baqhoiz bat bai)tçen
(baratçe haren erdian).
183. (Çuhain hora deiçen beiçen
(biciaren çuhainçia)
(beste bat çençiarene un)çaren
(eta gaizquiaren çuhai)ñçia.
184. (Bonneurra uqhen dit gin)co haren
(apostolu içateco)
(bai etare lumian)
(harequila ebiltequo).
185. (Iqhousi niçun hilçen)
(khuñtchian crucifatçen)
(bena bai guero ere)
(celietarat igaiten).
- (has)
186. Bere discupuliaq guitçu
alde guçietarat dispersatu
haren manuz instruitçera
mundiari manhatu.
187. Çeren bere odolaren khoztuz
nahi beicutu salbatu
haren obedient direnaq oro
çelietan berarequi plaçatu.
188. Eta ni içan nuçu
hiri hountaco haitatu
eta haren legue saintiez
nahi çuntuquiet instruitu.
189. Ginco falxiaq erasaturiq
ginco veritabli hora besarcacçen
çelietaco bidian ciraye
mementian edireiten.
190. Eta hori baduçie eguiten
hitz deiçiet ere ematen
çien haur gacho hori
sendoriq dela içanen.
- Fernando
191. Ginco hora beiçten aren
mundiaren creyaçalia
real balinbada
hirour persounen unionia.
192. Noulaz utci çian aren
erhaitera bere buria
balin bacen hora çuq
dioçun beçain photerexia.
- Jacques
193. Gincouaq berareq Sira
premititçen çipun
bere odolaren costuz
salvatu nahi guintçu.
194. Bena judioun maliçia
ere crudela çuçu
çeren eta sobera
incredul çutuçu.
- Fernando
195. Guiçoun honen eranez
jaunaçq cer çaiçie
gaiça orotan niq
çien avisa nahi nuque.
- Don Diego
196. Sira çelia lurra eta
beste gaiça guciaq
segur duçu içan direla
nourbaitez creyatiq.
197. Eta creyaçalia ginco
hora içaten ahal duçu
casu hortan uxutarçun handian
gu biçi içan gutuçu.

f.6r

198. Bena ere hori oray
balinbaliz sendotçen
deusetan ere Sira
eçin guiniqueçun dudaçen.

199. Sira phensamentu bat
aspaldian citaçun giten
eta hari ninçioçun
ahalaz bethi hurrunçen.

200. Louan eta iraçarrian
bethi niçu thurmentaçen
lo ninçanian gayaz
amex dit aldiz eguiten.

201. Gingo adoratçen tugunaq
fabxu diradiela
guiçoun majestatou bateq
houra eraiten çeitadala.

Isica

202. Sira naturalqui eni
çitadaçun uduritçen
statuaq adoratçen dutugunaq
eçin çiradiela gingo içaen.

203. Ceren lurreco materietariq
beïçiradian eguiniq
eta guiçounen escouz
aldiz formaturiq.

204. Eta jaun haren eranaq
oro çilit sinhesten
aperencia dian beçala
delacoz minçatçen.

Euphrasa

205. Oh Sira baçela
çerbait misterio
goure ispiritieg phensatçen
çien beno haboro.

206. Aspaldian phensatçen niçun
nahi bada enian eraiten
çeren lur hountan baiçiq
eçin guinen passeyatçen.

207. Çelian gaignian eta gora
nialacoz ikhouston
eta gu ihoulere hara
eçin guinelacoz jouaiten.

Don Secon

208. Sira astronomiaco libru bat
dit iracourtu
beitio içaraq naturaren
autoraq çutiala creyatu.

209. Eguin ciela arangamentu bat
distingatçez çounbaiten
eta içaen diferent eli bat
ceriela eman ucquen.

210. Denboraren coursaren
hayetariq eçaqutçeco
creyaçalia çela orotan gaiti
eta houra çela eguisco gincoua.

Indaleça

211. Sira guiçoun arguitu bateq
eran uqhen ditaçu
eçi libru hanitz
çiela iracourtu.

212. Culta hanitz bacela bena
gouria beno hoberiq bacela
eta ezpaguinen trounpaçen
miraculu handia cela.

213. Ezpeinian sinhesten
eniçun eguin casu handiriq
bena çerbait badela
Sira niq orai ouste dit.

Tesiphon

214. Sira içaen nuçu
mundian hanitz lecqutan
passeyatu içaen nuçu
cassi lur orotan.

215. Eta relegionian dit
ikhousi orotan diferença
haren beiniz segurqui
hanitz susprenitia.

216. Sependent bat baiçiq eztiçeçu
içaen veritableriq
eta jaun hareq eztiçu
eraiten ahal gueçuriq.

Theodora

217. Sira judiouen herrian
baçiradiela prophetaq
eta helçen çiradiela oro
hayeç eraiten çutienaç.
218. Asian içan ninçanian
eta Jerusalemen
hori niçun remarqui
eta icasi ukhen.
219. Eta Jesus haren gitia bada agueri
hayen izquiribuetariq
jaun horenetan(n) Sira
ez har bat(ere dudariq).
- Athanase
220. Sira ni(haurq iqhousi nian)
profeta (hayen librietan)
Messia (houna ginen cela)
hayetan (duçu erraniq).
221. Curiou(sitatez çoumbait)
iracou(ri niçun ukhen)
eta (hayetan hala)
iqhou(si niçun uqhen).
222. Cio(çun libru houraq cirela)
Ez(piritu saintiaz ditaturiq)
eta (jaun haren erranaç)
niq (oro sinhesten citit).
- (Minça Pascalina)
223. Sir(a goure haura balin badu)
gui(çoun hareç sendotçen)
eta (hartaco gincouaq)
hofura invocatçen).
- f. 6v
224. Fede osso bat diçuçu behar
hartu hartan gaignen
eta niq deya oro
horen eranaç citit sinhesten.
225. Ezuçu ez hain hurrunti
gin afrounteriaz
eta segur beçain bat nuçu
minço dela eguiaz.
226. Ikhousiren diçuçu bena
esparancha harçen dit
deja ene bihotça
duçu alegueraturiq.
227. Fede osoua harçen dit
bena othoi çuq ere
jauna uqhen eçaçu
nitçaz pietate.
228. Çoure gincouaq eta guq
çutugu reconpensaturen
caritate handy hori
ahal badeiçuçu eguiten.
- Fernando
229. Çoure içena comprenitu dit
deitçen ciela Jacobe
çoure gincouaq ekhaririq
çiradiela orai heben.
230. Miraculu handi hori orai
balin baduçu eguiten
hitz deiçuçu çoure leguia
dudala besarcaturen.
231. Goure gincouaq falxu badira
oro dituçuçu estreminaturen
eta Espagnaco lur orotan
bat ez solfrituren.
232. (Çuq adoratçen duçuçu
(ginco hora adora)turen
(eta ene sujet oro)ri
(ere adora eraciren).
233. (Hitz eman recompe)nsa ere
(segur duçu joanen)
(ene eregueren calitatian)
(deiçuçu hitz emaiten).
234. (Ginco handi haren dohaigñaç
(eztutuçu phacac)jetan
(dohain çitiçu bai)
(emaiten aldi orotan).
235. (Hobe çuqueçuçu bai leheniq)
(bacinaye bai batheiatu)
(chahuqui eta purqui)
(ene religioia besarcatu).
236. Eta ginco handi hareç
badu eguin miraculu
oh Sira segurqui
bertan içanen du.

237. Houra behar dit othoit
bena behar naiçie laguntu
haren ouhouretan cieq ere
behar duçie belharicatu.

Bellarica oro. Jacques m.

238. Jauna eztit merechi
egin deçaçun miraculu
bena çoure doctrinaren sustengaceco
graçia hori eguidaçu.
239. Ananiaz Mizaël eta Asarias
conserbatu çuntien labe gorrian
Nabuconodosor erreguiaq
ecar eraçi beitçutian.
240. Israelita houraq beçala othoi
jauna favori neçaçu
haur gacho hori jauna
othoi sendo eçaçu.
241. Esperancha dit jauna
çutiela çerbutchaturen
eta ikhousliaq ere oro
direla convertituren.
242. Jauna baçaquit badaquiçula
çihaureq çer comeni den
eta comeni balinbada
naiçula ençunen.

Jacques esquiaz hounqui haura.

Jacques

243. Jaiqui adi ene haurra
Jesus Nazareten içenian
eta ore çancoz ebi
memento berian.

Jauçi bat haurraq eguin eta bara haurra çuti.
Jacques bellaurica.

Jacques

244. Ah Jesus Nazaretecoua
khurutchian crucificatia
othoi jauna emouçu
haur uxu houni arguia.

Jacqueseq eguin khurutchiaren seignalia haurrari.
Oro jaiqui.

Philippe m.

245. Oh çelietaco gincou
oro photerexia
çu cirade çu jauna
gincou veritablia.
246. Guq adoratçen guthienaq aldiz
debriaq beraq dutuçu
idola hayetan barmen
gorderiq badiaudeçu.
- f. 7r
247. Celuco gincouaq nahi diçu
goure humanouaq conserbi
eta debriaq aldiz
oro gal eraci.
248. Beraq beçala ifemian
erre eraçitceco
su eternal handian
seculacoz chispiçeco.
249. Gincou jauna ez ciradiela
seculacoz laidatu
eta persona guciez
bethi adoratu.

Jeiqui.

250. Oh enne aita eta ama maitiaq
ikhousi duçie miraculia
eçagut eçaçie eçagut
çien erro handia.
251. Sinhex eçaçie Jacobe
Jesusen apostolia
edirenen beituçie
çelietaco bidia.
252. Niq ja nahi dut obserbatu
gincou haren leguia
galduren badut ere
milatan ene bicia.

Fernando

253. Alla miraculu handia
laidatu dela celietaco gincoua
çuq duçu çuq jauna
oro photere ossoua.

254. Dugun ginco hora adora
o ene seme maitia
o Jacobe procuratu deicuçu
orori bonneur içgarria.

*Fernandoq pot eguin haurari
Pascalina pot eguin.*

255. Oh enne seme maitia
Jesus dela laidatu
eta orai eguin deicuçu
graciaz eremestiatu.

256. O Jacobe handia
Jesusen cerbutcharia
goure favoritceco egun
digne içan çira.

Fernando

257. O Jacobe justoua
çouri nahi nuçu jarraiqui
eta çoure gincouaren maniaç
ere obserbatu fidelqui.

258. Ginco falsu houraq oro
escrasatu nahi çitit
anhartio ezlit
uqhenen phausuriq.

Jacques

259. Sira hori ourxa duçu
eztuçula dudariq
bena leheniq nahi deçut eracuxi
cer den hayetan gorderiq.

260. Satan Jesusen içenian
idola horietariq jalqui adi
herri hayetariq aparta
eta hurrun jouan adi.

Jalqui. Satan m.

261. Oh Jacobe madaricatia
ala hi ene bourreu handia
hiq behar duq contraditu
ene boronthate gucia.

262. Oh maradicatia ene
tribaliaq dutuq gal erasten
bena bortcha ezpadut orano
ihaur ait tentaturen.

263. Oh maradicatu infamia
eztutadaq aleta oro galeraciren
hire despit çounbait arima
diat orano billaturen.

Jacques

264. Appartadi maradicatia
herri hountariq
Js Cte phartez diouat
bertan neçaq obedi.

Satan retira. Jacques

265. Sira ikhousi duçu
Satan noula den
idola maradicatu horietan
barena gorderiq (beičen).

266. Horien ondoti (çeičien)
çounbait or(duz minçaçen)
eta ginco (veritabliaq cirela)
çieq ouste (uqheiten).

Fernando minça

267. Jaunaq (su handi bat)
eguin eç(açie)
eta mons(tro horiq han barmen)
era era(çi itçaçie).

Eguin su (eta erra eraci)

Jacques minça

268. In nom(ine patris et fili et spiritu
sant(i amen.)
Jesus(en içen saintian ait)
temp(ia purificatçen
cha(hatcequo laxatçen)
bai (etare benedicatçen).

*Bara. (Eguin Jesuseq benediccione bat.
Minça Fernando)*

269. Sira (orai templa)
purifi(caturiq duçu)
eta J(s Cen eļa)
guci ca(pable duçu).

f. 7v

270. Js crucificatiaren
badit heben imagina

- eta han behar liqueçu
houneq ičan plaçatía.
- Fernando
271. Jauna çuq beitaquçu
behar den beçala eguiçu
eçi gaiça gucietan çoure
aviser jarraiqui nahi nuçu.
272. Khiristi osso solamente
jauna errenda guitçan
cer nahi equin behar den
orotan prest gutçu.
- Jacques
273. Ene aurhide maitiaq Adameq
beiquntian becatiez khoçatu
qhiristi osso içateco
behar duçe bateyatu.
274. (Batheia) da sacramentu bat coignec
(beçhatu) originaletiq chahatcen beicutu
(qhiristi) gincouaren eta
(eliça)ren haur eguiten gutu.
- Retira oro eta beris jalqui oro*
- Jacques
275. (Ene) aurhide maitiaq çieq duçe
(egun) recebitu bonneur handia
bonneur necessari
bai eta pareriq gabia.
276. Batheya artio cien arimaq çiren
(qhedarria) beno beçago
(eta) orai batheya oundouan
(aldiz elhurra) beno chouriaq.
277. (Orai artio)co becatietariq
(ciradeye) chahaturiq
(ginco veritablia)ren eta
(eliçaren haur erren)daturiq.
278. (Ainguriq beçain chajhu
(celian sarceco estatian)
(orai bacintaye ere)
(oro hil mementian).
279. (Scriptura Sainiaren libriaq)
(eta testamentu bericoua)
- (erremetituren deiçiet)
(legue eguiazcoua).
280. (Hayen lecturaq beicutie)
(feitian eçariren)
(bai eta noula gouberna)
(ounxa eracouxiren).
281. (Eta dudariq duçienian)
(oro deiçie esplicaturen)
(moyen harez celietarat)
(oro beiquira jouanen).
282. Bena hartaco noula
behar beita denbora
guitian placer baduçe
barniala retira.
- Retira. Jalqui Lien Grabiel ainguriaq*
- Grabiel
283. Ene laguna boztarioz
dugun remestia
goure equinbidia da orai
cantica baten cantaçia.
- Khanta bíaq.*
284. Adoratçen çutugu jauna
erreguen erreguia
o saintien saintia eta
perfectionez bethia.
- Sonu.*
285. Çoure legue saintia duçu
a jauna emendaçen
çoure graziezco besouez
mundia duçu atiratçen.
286. O Jacobe apostolia
Jesusen adisquidia
gincouaren legue saintiaren
sustengaçale handia.
287. Jauna çoure legue handia
hareq diçu observaçen
çoure gracia divinouaz
çuq ere hora lagunçen.
288. Gloriaz betheriq çaude
kherubinen artian

bai eta bethi içanen
eternitate lucian.

*Retira oro. Jalqui Jacques passey. Jalqui Isiçe
Euphrasa Second Indaleça Theodora eta Athanasa*

Isice

289. Jacobe salutaçen çutugu
gincoua dela çourequi
bere graçia divinouaz
lagunt çitçala bethi.
290. Çuq eman libritan
jauna ikhousten diçugu
ginco handiaren çerbutchatceco
noula behar duçu gubernatu.
291. Bena beste gaiça batez
nahi çuntuquegu othoitu
plaçer gutuçun recevitu
jauna çoure diçipulu.
292. Hanbatenaz perfektquiago
instrui beiquinçaqueçu
çeren goure salvamentia
eguin nahi guiniqueçu.
- f. 8r
293. Eta goure eguin ahalaz
çinçaquegu assisti
ignoranten instruitçen
guç ere goure aldeti.

Jacques

294. Ene aurhide maitiaç nahi neiqueçe
eguin bai niq hala
legue saintiaren instruitçen
ene eguin bidia den beçala.
295. Bena oren baten thermaignia
nahi neiquicie galthatu
eta ordian nitçioie
eman niq arrapostu.

Isice

296. Jacobe placerequi guç
hori equinen diçugu
oren baten burian aren
houna utçuliren gutuçı.

*Retira Jacobaz bestiaç escun
Jacobe bellarica*

297. Gincou jauna othoi
çuç esclari neçaçu
Jesus çoure graçiaz
othoi guida neçaçu.
298. Argui naçaçu othoi
o izpiritu divinoua
eçaçut deçadan çoure
boronthate ossoua.
299. Guiçoun hayen galthouari
behar dudanez behatu
çoure gloriataco nitçaquienez
har banitça çoure diçipulu.
300. Othoi inspira içadaçu
noula eguin behar dudın
rejetatu ala reçebitu
çointariq behar dutudan.

Ainguria Lian jalqui eta m.

301. Jacobe hayen desseigna
hoben hobena duç
gincouağ plaçer diç eta
recevitçen ahal dutuq.
302. Gincou handiarequi dutuq
guiçoun hayen bihotçağ
eta hayen acceptaçeco
badutuq hiq hayen botçağ.

Jacques

303. Jauna remestiatçen çutut
eman deitaçun arguiaç
ginco jauna lagunt neçaçu
othoi bethi çoure graciaç.

*Ainguria retina. Discipuliağ jalqui escugnetiq.
Torcat eta haren lagunağ gin hareago escugnetiq.*

Jacques m.

304. Hounqui gin çiradeyela
ene aurhide maitiaç
acceptatu nahi dutut
çien propositioniaç.

305. Ouste beitut hortan dela
gincouaren boronthatia
algarren lagunçeç deçağun
irabaz ahal celia.
306. Lagunturen benaiçie
mundiaren instruitçen
eguin ahalaq oro eguiniq ere
ezpeitugu sobre eguinen.
- Isice
307. O Jacobe Jacobe oroq
remestiatçen çutugu
çuq eranen eguitera exatoqui
oro isseyaturen gutuçu.
- Jacques m.
308. Algarrequi confesatcera
guitian aren orai retira
legue saintiaz iseyaturen niz
çien ounxa instruitçera.
- Bara. Retira oro erdialat.*
Jalqui Don Isice erditiq
309. Hitz eman deroqu laguntçera
populiaren instruitçen
eta legue veritableco libriaq
dereizcu eman ucquen.
310. Hayetan ikhousi dugu gincouaq
eguin çielâ hamar manu
beraren adoratçera maitacera lehenian
gaiça ororen gaignetiç manhatu.
311. Respectu hand(i bat derogu aren)
goure creya(çalia delacoz ekhari)
goure oth(oçiaq hari adresatu)
umilqui et(a modesqui).
312. Manu houra (observaçen dianaq)
eztu beste (manuriq hauxeren)
çeren hareq (diouan beçala)
beita gaiça (orotan gubernaturen).
313. Hareq manh(ataiq oro eguinen)
defendien (contre ez jouanen)
eta hala (eguiten ezianaq eztu)
gincou resp(ectacen ez cerbutchatcen).
314. Lurreco buru(çağui handi bat)
duçu obedi(turen)
eta ezpa(deroçu eguiten mania)
loxa (cirade benturaz içanen).
315. Eta gincou(a çoumbatenaz ezta)
handiago et(a photerexiagio)
denaz gueroz oro(ren buruçağui)
eta erreguen erreguia.
- f. 8v
316. Houra beti present duçu
nahi bada eztuçun ihousten
çoure obraq eta phensamentiaq
oro ditiçu eçağutçen.
317. Çounbatenaz guiçounen beno
eztuçu içan behar ahalquiagio
gaizquia eguiten duçunian
çounbatenaz loxa handiago.
318. Lurreco persouna bat
duçunian ounxa maite
hareq nahi eztianiq
eztuçu deusere eguinen.
319. Hitz batez eraitera hareq
erranaq obedituren dutuçu
eta hareq manhatia
obserbatçen constetitçen duçu.
320. Eta hala eguiten baduçu
çelian plaçaturen çutu aren
eta goça eraçiren gloria
çoun betçeiciet desiratcen.
- Retira. Jalqui Euphrasa*
321. Euphrasa Jacobe apostoliaren
present diçipuliaq
salutaçen çutfe
ene aurhide maitiaq.
322. Gincou eguiazcouaren leguez
harequila instruituriq
bi hitcez ninçeiqueçie
minçatu nahi hebetiq.
323. Creyaçale handiaren manu
seguntian dugu edireiten
(gincouaren içena) ezteçala ez jura
(ez bestiren gaiça)riq behar gabe.

324. (Devetacen deicu a)ren haren manu hareq
(gincouaren içena)ren behar gabe
(eta votoueri) edo gincouari
(hitz emanen ez co)mplicitia ere.
325. (Çeren gincouaren içena
(dianaç juratcen)
(erraiten dian gaiça) hala dela
(gincoua du jaqui)le eçarten.
326. (Gincouari ezteya) eguiten aren
(injurio eta mespe)retchu handia
(surtout gueçurian) berian
(haren jaquile har)çtia.
327. (Votouaren ez complicitia
(hari hitz emanen) ez eguitia
(eta bourhau) arnegu hayez
(gincouaz) da trufaçtia.
328. Eta nahi bacira salbatu
behar duçu counduta quitatu
orai oranocouez egun penitencia
gincouari umiliatu.
329. Ahala baduçu eguiten eta
bihotçez umiliatçen
faltaç pharcaturiq gincouaç
glorian çutu plaçaturen.
- Retira. Jalqui Don Second erditiaç.*
330. Second Jacobe handi
apostolien discipuliaç
salutaçen çutie
ene aurhide maitiaç.
331. Badaquieç haren manuz dugula
legue veritabilia causitu
bena ezquirela orano
ossoqui instruitu
332. Hareq instruituriq
nahi nitçaiçie minçatu
eta gincouaren mania
ere esplicatu.
333. Igantiaç beguira itçaq gincoua
cerbutçaçen dialariq (deboqui) 6
334. Khorpitçaren lanetan aren
egun hetan ezta behar travaillatu
bena gincouaren cerbutchian
behar dira emplegatu.
335. Offiço divinouaç dira behar
ençun ordian eliçetan
eta arrastaco eguna ere
igaran gincouaren othoiçetan.
336. Aita amaç buruçagui buruçaguseq
behar du gogoua eman
hauraç eta miscandiaç
igaran eraçi egun houraç obratan.
337. Bestella hayeq ezpadutie
egun houraç ounxa emplegatçen
hayen falta oroz dirade
beraç coupaule erendatçen.
338. Penitencia handiriq
ezpaduie eguiten
edo ez casuriq eguiten
gincouaç ezteieç pharcatçen.
339. Arren arren gincouari
pharcamentu galtha eçaie
bihotçez umilia çitie
pharcaturen beteieç.
- f.9r
340. Penitencia baduie eguiten
gloria goça eraçiren
çouin beteieçiet orori
ene bihotçez desiratçen.
- Retira. Don Indaleça jalqui erditiaç*
341. Indaleça Jacobe
handiaren diçipuliaç
salutaçen çutie
ene aurhide maitiaç.
342. Haren manuz ikhasi dudan
gincouaren laur guerren mania
cerbaitetz nahi çutiet instruitu
nahi niz arren minçatu.
343. Aita eta ama ouhoua itçaq
lurrian biçi adin luçasqui

6. Ba, 180 b.

- haurrentaco eguin die
gincouaq manu hori.
344. Arren cieq haurraq
obedi eçaçie jaunaren maniar
bai eta justo beita
cien aita eta amari.
345. Lehen mania da hori çouintan
promes bat dianiq guicounaq juntaçen
haurriq bere aita eta amari
obedient mundian içaten.
346. Promessa houra ezta
aplicaturiq harentaco
eta haren galtçia
segur da lehenago.
347. Eçi gaizqui eguitera
badutuçie manhatcen
eta manu gaisto harez
hayeq çieq sinhesten.
348. Çieq eta haurraq oro
galduren ciraye
suplicio etemala
merehitçen beituquieie.
349. Eta çieq miscandiaq
obedi çien buruçaguiq
deusere rebocatu gabe
justo diren maniaq.
350. Eta çieq buruçaguiq
ounxa trata çien cerbutchariaq
phacatcen dutuçielariq
oro hitz eman guçiaq.
351. Handiaq chipiaq bai
bere obren grado juntaçen
eta sinhesten badutucie abis horiq
haren gloria duçie goçaturen.
- Retira. Don Thesiphon erditia*
352. Thesiphon Jacobe
handiaren discipuliaq
salutaçen çutie
ene aurhide maitiaq.
353. Haren obeditceco eta
gincouaren cerbutchaceco
- bi hitz behar dut eran
çien instruitçeco.
354. Gincou hareq bost guerren manian
dio goure manhatçez
guicoun erhaille ehiçala
obraz ez boronthatez.
355. Bena ezta defendatçen
solamente erhaitia
ez goure proximouaren
çaflaçia eta gaisqui tratatçia.
356. Hari mendecatçia eta
haren offensatçia
bai eta exemplu gaistoriq
hari deus emaitia.
357. Çounbat nahi exaya han(di)
behar dugu maitatu
eta oguenic eguin badeicu
behar deiscogu pharcatu.
358. Ezteya eguia eta
gincouari galthatçen dugula
pharca ditçagun goure faltaq
guihaureq pharcatcen tugun (beçala).
359. Eta ezpadu(gu arren)
goure e(xayari pharcatçen)
gincouaq e(re gouri)
ezteiqu (pharcaturen).
360. Ofenxa aldi(z oroz gincouaren)
exai guirça aguitçen)
eta pha(rca diçagun)
dugu g(uero othoiçen).
361. Ezteya (arren justo guq ere)
etxay(ari pharca diçagunero)
gincou (handi hareq)
manh(atçen gutian guero).
362. Moyen (hoberiq ezta arren)
mundu (hountan adisquidetaco)
eta g(oure salvamentiaren)
hil oun(douan auteniçequo).
- f. 9v
363. Eçi exai hareq ekhousten badie
oguen handi bat çayola phacatçen
phacatçale hareganat
amourio du eçarten.

364. Eta pharcaçaliaq gincouarequi
hala hala baquia eguiten
bere hitça mancatu gabe
hareq ere gouri pharcatçen.
365. Ez uqhen ez arren
hastioriq ihourentaco
bena bai ahal orori desseigna
bethi ere hounqui eguiteco.
366. Moyen horez beitugu
ifernia evitaturen
bai eta pharadusuco
gloria handia acquisituren.
- Retira. Athanasa jalqui erditiq.*
367. Athanasa Jacobe
handiaren diçipuliaq
salutaçen çutie
ene aurhide maitiaq.
368. Sarthu niz haren discipulu
arimaren nahiz salbatu
eta çieq salva eraçi
ene desira hora luqueçu.
369. Gincou handiaren preceptez
harequila beiniz instruitu
çier hayez pharte emaitetz
nahi ninçiequeçie minçatu.
370. Gincou handi hora minço da
(seigerren) manian erraitetz
(luxurious e)hiçala
(gogoz ez k)horpitçez.
371. (Luxuria duguno) handiaq
(hastioueniç dian) bekhatia
(ceren ataçatçen) beitu
(chahutarçun) glucia.
372. (Gincou handia da) chahu
(bai etare garbia)go
(celia clar du)jian equia
(egouerditan den) beno.
373. (Ulhunpe handiena) beno beltçago da
(aldiaz luxuriazco) bekhatia
(eta hora beno arguia)go da
(bai belçeniç den b)elia.
374. (Ez estona arren mu)ndia
(denian hain eman)iq hartara
- (gincou handi) hora
(mundiaren) countre bada.
375. Sodoma eta Gomora haren causaz
çutian gal eraçi
bekhatu haren cometiçaleq
gaztigu handia luqueye mereci.
376. Criminelqui persouna bat jouitçez
ezta solamente cometiçen
bena bai boronthate osoz
cometiçia bada desiratçen.
377. Elhe desounest eraitez
coumpagna çounbaitetan
bekhatu cometi eraz diro
çounbaiten bihotçetan.
378. Galcen da bere arima
eta bestena gal erasten
maleur haren causaçez
coupable erendaçen.
379. Bekhatu hareq egoisten du
iffemiala arima haboro
beste bekhatu oroq
algarrequila beno.
380. Luxuriosa aren
ikhara eta lox adi
munduco genten ororen beno
gincouaren alquiago iça adi.
381. Galtha içoq misericordia
eta equin penitencia
hainbeste millatan dianian
merechitu iffernia.
382. Humiliadi gincouari
adresa Maria Virginari
çeluco erreguigna
maculariq gabari.
383. Eguiq nigar eta oiheu
bena bihotcez
eztuq asqui dolu
erraitia elhez.
384. Gincouaren misericordiaren
handitarçunez baiciq
ikhous eçaq ehiouala
graçiariq merechi.

385. Halere ezteçala
ez gal paçencia
beqhatu guçieq algarrequi beno
handiago duq gincouaren pouchancia.

386. Eta pharcaturen diala
diq hitz emaiten
bihotçez hareganat
denari utçultçen.

387. Penitenciasco doloria
ucqhen eçaq bihotçian
eta verthutiari jarraiqui
ore denbora laburian.

f. 10r

388. Hala eguiten baduçie
graçia eguinen deičie
eta desiratçen beteçiet
çelia goça deçaçien.

*Retira. Jalqui Jacobe bere dicipuliaqui erditiq.
Esqun. Isica Eufresa Second Thesiphon Athanasa.*

Jacques

389. Ene aurhide maitiaq ouste dut
ungurune hountaco gentia
orai diradiela
haborouaq convertitiaq.

390. Noun ere ouste beituçie
dela necessarieniç
hara behar gunuque
orai jouan bertariq.

Athanasa

391. Jacobe Çaracoçe duçu
Espaignaco herri ascaretariq
eta hanco populia
balis convertituriq.

392. Arastacouaq oroq
exemplu har liroçie
eta eguiazco gincoua
oroq eçagut liroçie.

Jacques

393. Dugun aren gincoua othoi
phartitu gabe heben

jouan guitian guero
negligamenturiq gabe.

Oro bellarica. Jacques m.

394. Jauna eguin duçu
herri hountan miraculo
gouri othoiez behatçeco
gracia eguin deiçuçu.

395. Eçagut eraçi duçu heben
çoure relegione saintia
continua daçan hartan
jauna eguiçu gracia.

396. Phartiçen gutuçu jauna
eta othoi lagunt guitçaçu
çoure secours saintietan
jauna fidatçen gutuçu.

Passeya erdian. Bara.

Atanasa

397. Jacobe Çaracoçe
soiçu haur duçula
bai eta haur duçu
Aragoueco hiri capitala.

Jacobe

398. Ene lagunaq hox arren
bertan hiriaren barnera
gincouaren preceptez
populiaren instruitçera.

399. Goure biçiaq gal
ouste baduçu ere
eztugu ez behar
dudatu deusere.

400. Gincou handiaq gutu
bethi favorituren
mundian çer nahi den
çelian gloria emanen.

Passeya hel buriala han bara.

Jacobe

401. Behatu betçaigu
hiri hountanco populia
ene lagunaq badugu
contentamentu handia.

402. Esparancha dut gincou justoua
diela eçaguturen
khiristi osso eta pur
oro direla jarriren.
403. Uhaitz handi bat beitut
hortche ikhousten
badaquiçeya hori
noula deitcen den.
- Don Theodore
404. Jacobe Hebroco uhataça
hori deitçen du(çu)
Espaigna or(otan hori beno)
handiagoriq e(ztuçu).
- Jacobe
405. Horen jountouan (behar dugu)
arren gincoua (othoitu)
eta guero de(içiet)
çerbait na(hi comunicatu).
- Jouan aitçi(nache belarica eta minça)*
- Jacobe
406. O jauna gou(regati)
odola ichou(ri duçu)
gincou jauna (arren)
othoi con(serba guitçaçu).
407. Jauna lagu(nt guitçaçu)
biçitçen ço(ure gracion)
sar ezkitian (secula)
bekhatu mortalian.
- f. 10v
408. Bekhatu venialetiq ere
jauna othoi beguira guitçaçu
goure arimaç ezititan
ihoulere içañ laçhatu.
409. Justo den beçala
cerbutcha çitçağun lurian
eta celian adora guero
hil guirenian.
- Jaiqui oro.*
410. Ene lagunaq hebetiq landan
Jerusalemara behar dut
- lur saintu houra
visitatu nahi dut.
411. Eta jaquin hanco lagunaq
noula jouaiten diren
eta judiouetariq bathere
denez convertiçen.
412. Bena noula Espaigna haur
ecin beitiroquegu utci ere
jaquin eçaçie gincouaq
badeitala cerbait photere.
413. Eguiten ahal dut aphez
bai eta aphezcupu
cietariq biga aphezçetaco
nahi dut ordenatu.
414. Athanasa çu eguiten çutut
aphez eta aphezcupu
beste aphecen guehien
cirateque bethi çu.
415. (Eta Theodora çu) er
eguiten çutut alphez
çoure aphezcupiari duqueçu
(içañ behar susmi)z.
- (Minça Athanase)*
416. (Aye Jacobe hand)ia
(Ni incapable) nuqueçu
(eta çoure abse)ncian
(deusere nunqueçu).
417. (Cargu hareq loxaç)en niçu
(othoy exempta ne)ççaçu
(lehenago beste hor)jetariq
(bat othoy içenta) eçaçu.
- Minça Theodora*
418. (Jacobe handia niq) erç
(orobat deiçut errai)ten
(cargu handy) houra eztit
(ounxa ce)rbutchaturen.
419. Othoi beste batetaco çoure
beguiaq egoitz itçaçu
çouin nahi beno
capauliago dutuçu.
- Jacobe

420. Ene haurraq gincouaq
 behar du acceptatu
 eta haren boronthatiaz
 içaniz ni guidatu.

421. Behar duçe cieq ere
 berguisan susmetitu
 eta berarez içanen ciraye
 duda orotan esclaritu.

422. Arren bellarica çitaye
 eguin deçadan çeremonia
 eguin çiençat hori
 gincouaren mania.

*Bellarica Athanase Theodore
 Burugaignetan eguin curutchiaren seignalia.*

422. Athanasa haur duçula
 aphezcupu marca.

*Eçar mitria burian
 khurutchiari har eta minça*

Haur duçula Jesusen arboria.

Eçar khurutchia lepouan

Eta haur exayen contresco maçhila

Eçar arropa soignian

423. Theodora çoure aphez (marca)⁷
 aldiz haur duçu
 eta hounequi batian
 haur ere baduqueçu.

*Eçar Jacobeq bounet carratia burian
 eta coleta lepouan*

Jacobe

424. Ene hauraq biaz ciraye (aphez)
 Athanasa aphescupu
 duda orotan apheçaq
 behar dutuçu guidatu.

425. Ezitarçunez eta amorioz
 houraq bethi tratatu

eta duda duçun aldi oroz
 gincou jauna consultatu.

426. Bihotz ossoz houra
 othoiçen duqueçunian
 inspiraçione behar dena
 emanen duçu instantian.

427. Eta bieq behar duçe
 exemplu houn cerbutchatu
 eta gincouaren preceptez
 populiaq guidatu.

428. Unionia eta baquia
 sustout çien artian
 behar duçe conserbatu
 bici çiradeyeno mundian.

*Has. Jalqui Ama Virgina Aingurieq
 artian erditiq Aingurueq canta Ave Maristella
 Jacobe bere lagunequi bellarica*

Ama Virgina

f. 11r

429. Jacobe behadi
 orai ene botçari
 hire obraq oro çitçoq
 agrada gincouari.

430. Haren graçiazen moyanez
 aingurieq houna nien ekharri
 Jerusalemeriq houna cerbait
 ordrerem emaitera hiri.

Jacobe *bellarica m.*

431. Salutaçen çutut
 andre dana Maria
 Js Chten ama eta
 çeluco erreçuign handia.

Virgina Maria

432. Jacobe behadi
 adoracioneriq ez eguin eni
 baicq eta celuco
 gincou jaun handiari.

433. Çeluco erreçuign nuqueq
 beno enuq ossoqui orano
 celietaco gloriala
 goiti igain artio.

7. Ba, 193 b.

434. Ordian ere eztiqeyat
içan behar adonatu
gincouaren plaçerarequi
solamente bai ouhouratu.

435. Sainu içanen iz hi ere
eta baduquec ouhoure
eta hire fidelitiatiaq
merechi diquec ere.

436. Hire eta ene devot diratequianaq
gincouaq çitiq ençunen
eta bere gloria handian
çitiq recebituren.

437. Eta herri hountan ene
devot dutuq içanen
eta orai daniq çitiat
ene protectioniaq eçarten.

438. Hori dela causa
pilar haur den lequian
eliça bat behar duq
bastieraçi mementian.

439. Hanitz mundu beita guero
devocionez houa ginen
gincoua adoraturen
eta ni ouhouraturen.

Jacques

440. Andere dana Maria
ezlit ez mancaturen
eta çoure ordriaren
fidel nuçu içanen.

441. Ene ahala ere
dit bai emplegaturen
eta çoure secoursez
nitçaiçu gomendatcen.

Virgina Maria

442. Jacobe bai hori
etçaiç faltaturen
lurrian eta celian
ohart ait eduquiren.

443. Jesusen amorecatiç Jerusalem
odola duq ichouriren
bena martir khoroua
duq errecibituren.

444. Jesusequi içanen gutuq
eternitatan algarrequi
eta anhartio adio
dioat orai hebeti.

Ainguriq cantacez retina Ave Maristella. Oro jaiqui.

Jacques m.

445. Ene lagunaq ikhousi duçe
niç merechi gabe
çer visita dudan
orai ukhen hebenche.

446. Js Cht goure salvaçaliaren
amaq nai visitatu
eta visita harez çutie
çieq ere partiçipatu.

447. Eta harentaco devot
balin baguira içaten
çeluco glorian plaça bedera
etçaiçu faltaturen.

448. Theodore cerca içadaçu othoi
çuq counbait majesturu
hebenco lecquia niç beno
hobequi çieq beitaquieçi.

Don Theodore

449. Goure buruçaçui (maitia)
hori bertan dit (niç eguinen)
majesturu et(a muru eguile)
bertan houa (eraqhariren).

*Theodoraz (bestiaq retina. Sonez)
(passeya Theodora Gorgea eta)
(Cipri jalqui esquerreti)
(Theodorari buruz Theodora m.)*

450. Ene aurhide mai(tiaq)
salutaçen çut(çiet)
bonneur eta (fortuna)
desiratçen derei(çiet).

451. Çien beharra b(adut)
bena nahi (çutiet sastifatu)
eta obrage b(aten equitez)
nahi çuntuq(ueyet othoit).

452. Eta obrage (houa nahi nuqueçu)
houn eder et(a solido)

- eta guero ph(acatu)
ounxa behar (dena oro).
- f. 11v
453. Eliça bat nahi nuque
hebenche bastieraçi
eta eguin çiniroyenez
eradaçie eguiasqui.
- Don Carleran
454. Hori deitadaçia
eguiten counplimentia
eztudanaz gaignian
mundian noure paria.
455. Joan nuçu Asian African
particularqui Erouman
eta obra edermiq eguin
bethiere thempletan.
456. Asqui dit phensatçia
lanaren eder eguiteco
bai eta mundu ororen
admira eraçitceco.
457. Obrage hetariq çerc nahi
eguitera niçan manhatcen
oro çitit eder
eta curious eguiten.
458. Bena nahi nuçu ere
ounxa içan pacatu
ceren ounxa bicitçia
ere beiniz usatu.
- George m.
459. Eliça houra arauz
bastimenta çounbait duçu
jauregui çounbaiten pare
ala ederrago ahal duçu.
460. Guç diçuğu eguinen
eci eztuçu heben
officier goure pareriq
ez mundu orotan içanen.
- (Minça Ciprian)
461. (Ez jauna ja)quin eçaçu
(geographariq) eztuçu
(ez eta injeignu)riq içaten
(ahal gouri com)paritu.
462. (Goure esperiençi)iaqhın jaquitatiaç
(Gro surpasatzen) çitiçuğu
(Hala hala reputacio)nia
(ese handi diçu)ğu.
463. (Enjeignureç sa)ldouetan
(avis diçuçie gal)thaçen
(eta uduri balin) baçaigu
(bai guç ere emaiten).
464. (Arlogea bat eguin) guniroçu
(erota baqhoiz bate)kui
(beste resortiq gabe) orenaq
(marca beiliçaque) fidelqui.
465. (Eihera bat hourec)o
(estona beiliçaque) oro
(ormian eho b)jeilro
(ehun gounca) beno haboro.
466. Aire eihera bat ere
eguin guiniroçu
mila gounca beno haboro
egunian erho liroçu.
467. Jauregui bat airian
guç eguin guiniroçu
ihourq ere orano
eçin ikhousi beitu.
468. Canal bat eguin guiniroçu
itchasouaren houna eracarteco
eta lur hoyen ororen
hourez estal erasteco.
469. Itchasouaz borthu handi houra
gainti eraci guiniroçu
eta casu hortan ounçi hanitz
heben basti liteçu.
470. Bena hanitz irabasteco
hanitz behar diçu abançu
bena abançu houraq oro
aisa cupera litaqueçu.
471. Horti phensa eçaçu ezтуgunaz
guç eguinen eliça bat
haren causitcia ezlit
estimatchen sagar hiro bat.
472. Eguia duçu eder eguiten bada
haraq ere costa behar diçu

- eta justo den phaquia
hartaco ere behar diçu.
- George
473. Çipriano vanitateriq
hartu behar eztiçugu
goure jaquitiaz heben
minçatu behar eztiçugu.
474. Hala duq horiq oro
eguin guinçaquiela eguia
hala noula beiquiniroque
erhiez hounqui çelia.
475. Bena jaun houneq eztiq
horiétariq deusere galthaçen
questione duq eliça
dirogunez eguinen.
476. Bena bai jauna
behar duçu segurtatu
eta çoure desir (duçunaz)
contentaturen çutugu.
477. Çuq gu ounxa phacaturen
eta guq profieitaturen
marbleu goure familiaq
eztiçu deusere menxiq ucquenen.
478. Parblu marbleu ventrebleu
ala asto handiaq
secula eztiq ucquen pareriç
çien vanitatiaq.
479. Asto çahar bateq balaquieç
hobequi arrabitaçen
eçiez eta çieq
erran duçieneguiten.
- f. 12r
480. Etçanaquieç solamente
bi çehetaco muriaren eguiten
ez teilla baten ez ohol baten
hegatçian eçarten.
481. Eta solament deusere
baduçie interpeniçen
Espaigna guçia oro
niq diat gal eraçiren.
482. Orage bat diat formaturen
harria has eraçiren
- harria harin gaignen
ezpeitut ihoun utçiren.
483. Solamente egon çiteye
eni arrapostu eman gabe
eçi enequi ellestaçeco
etçiradie çieq capaule.
- Don Theodore
484. Jaunaq nihaur beno badut
buruçaçgui handiago bat
eta harequila dugu
igaran behar ele bat.
- Solido
485. Jauna lana guq
bertan eguinen diçugu
ounxa baguira biçitçen
indar franco beituquegu.
486. Çaracoçeco ardou chouritiq
picherra badut edaten
hoguei quintale harri
niq dit aichaturen.
487. Bai eta piteralia
hoguei khana luçeriç
eçariren dit bere lecquian
escu batez harturiq.
- Horto
488. Bai eta niq hirour picher
ardou hartariq badut edaten
hoguei quintale mourter
burian dit khareyaturen.
489. Hebroco uhaitçetiç harigna
aztaparca dit idoquiren
eta plaça baten bethia mourter
oren bathez eguinen.
490. Eta çuhain behar bada
cerbait obraçetaco
hoguei lecoua huruntiq
ossoriq dit ecarico.
491. Amourecatiq adarraç eta ezpalaç
dutuqedan nouretaco

- daigun neguian goure etchen
su houniq eguifeco.
492. Ardou chorta çounbaiten
berotçez edateco
etchequiliari eraiteco
Brindo cavaillero.

Don Theodora
493. Hox ene buruçaguiagana
minçaturen beiquirade
eta hareq segurqui
sastifatione emanen deiçie.

Passeya oro. Jalqui Jacques

Theodora m.
494. Ene buruçagui maitia
officieraq çitit eracarten
eliçaren eguitera
beitie hitz emaiten.

Jacques
495. Jaunaq arren bertan
behar duçie tribaillatu
eta çien phena orotçaz
içanen çiradie phacatu.
496. Hebenche equin behar da
pilar haur den lecquian
gincoua beita habitaturen
eta haren ama harequilan.
497. Ahal beçain eder
çurious eta solido
eguiche eta ounxa
çutiet sastifatuco.

Solido
498. Jauna estrena beçala
behar deiçuçu eduqui
ardou chorta çounbait egarriaq
erho ezquitçan amorecatiq.

Jacques
499. Bai jaunaq hitz deiçiet
etçaiçie mancaturen
- conditionequi haregatiq
etciradeyela ordituren.
- George
500. Curiousqui gutuçu
jauna tribaillaturen
eta countentamenduzco
obrage bat constrituren.

Jacques, Theodor retira.

Don Carleran
501. Jaunaq ni banoua
imaginaren eguitera
eta isseye çitie
bertan deligentçera.
- Oro travailla. Satan jalqui.*
502. Ala jaunaq çieq
asto invicil hardiaq
etçutuya ingoiti
erhaiten egarriaq.

Solido
503. Jaunaq egarriaq
ni huillan nai itho
edaten ezpadut laniq
estitrot equin haboro.

Edan beraq.
504. Brindo jaunaq
çien ossagarriari
civilitatez nihaureq dut
leheniq edan nahi.

Solido *jaiqui*
f. 12v
505. Sculturra eder haur
hire obragia deya hebe
houlaco bat equin liroq
bai asto bateq ere.
506. To soic sudurra
handiegui eguiten deroq
hori beno propiagio
nihaureq equin niroq.

Don Carleran m.

507. Ale pec inbicila eta
çer deitac eraiten
eta ene obragetan
hi iça melatçen.

508. Eztuca ikhouston orano
eztudala urhenturiq
muthurra hauxeren derat
ichiliq egoiten ezipahiz.

Travailla. Horto

509. Ciprien harri hori
eztuc ourxa plaçatu
eztuca ikhouston
ossoqui dela desplomu.

Cipriano

510. Alle içan beçalaco
pec buru nahassia
gorment ordi uxutu
ourde mila debria.

511. Ihaur beno abillagouari duca
hic eman behar lectioneriq
phacaturen duc fripoua
sobera balin badaquic.

Travailla. Satan

512. Ounxa hori arraçou duq
lot acquoio billouetariq
eta buru hortan
ez utci billoriq.

Eliça eguin. Çipriano

513. Heben dugu orai
obragia urhenturiq
hounen edertarçunaq nai
eçarten dicituriq.

George

514. Bai segurqui eraguilia
countent datequiela
guiçoun galant badapaquia
houniq ucquenén dugula.

Jacques *jalqui*.

George

515. Jauna haur duçula
obragia finituriq
placer guiniqueçu baçina
countent çoure bihotçetiç.

Jacobeç so eguin m.

516. Jaunaç content niz
obrage ederra da
bena nahi çutiet
phacatu ere ounxa.

517. Counçençiaz eraçiç
eya cer behar duçiç
eta oro dereçiçet
heben berian khountaturen.

George

518. Jauna harri hanitz hurunti
eracarri behartu çiçuçu
eta çouraç orobat
çihaureq ikhouston duçu.

519. Languile hanitz segurqui
eracarri behartu çikhuçu
burduçnaç eta beste materiaç oro
hanitz costariq dutuçu.

520. Hoguei milla libera
amens behar guiniqueçu
eçi bestella guihaur
galçetçan gutuçuçu.

521. Hala badaçuçuçu
hargatiq çerbait profeytu
eta çoure ounestian
jauna fidatçen gutuçu.

Jacques

522. Jaunaç eztut nahi
deus gal deçaçiç
eta ni ere çiçetan
niz aren fidatçen.

523. Oriçiç aren paquia
orai aren haur eçaçiç
eta emplegu hounetan
eçar eçaçiç.

George

524. Jauna remestiatçen çutugu
eta berriz behariq baduçu
goure cerbutchu chipiaq
offritçen deritçuğu.

Jacobe retira. Bestiaq passeya

George

525. Ala guiçoun hora guiçoun galanta
behar dugu laidatu
çhicanariq gabe hain ounxa
gutienaz gaignian phacatu.

Çipriano

526. Lan handia equin diaigu
bena irabaçi ederra diaigu
amens behar dugu
ostatian ounxa libertitu.

527. Behar dugu jan eta edan
gaiça hobenetariq
halere goure familientaco
badiquiaigu soma ederriq.

f. 13r

George

528. Bai aren hox
orai mementouan
ardouz oguiz eta araguiz
ounxa asse guitian.

Passeya. George

529. Laur pitcher ardou
ostalersa emaguçu
chahal baten araguia
orobat behar diçuğu.

Jalqui. Balençiano ostalersa m.

530. Jan eta edan eçaçu
bena ez billaisca
eman eraçiren deiçiet bestella
hamama osticata.

Ecar jateco eta edateco. oro jar Balenciano.

George

531. Ehioua eman ere
secula edatera
ouste duca obligatu niçala
bethi hire cerbitçaçera.

Çipriano

532. Içan beçalaco golut
animal gorment auhera
jauz eraciren derat
sarri hiri bellara.

George

533. Gorment auher ordia
jaquin behar diaigu bougria
hire billoueq jaquinen die
ene besouaren airia.

Lot billouetariq. Satan m.

534. Alo erho inbiçilaq
niq çutiet berheciren
eta nourq duquian oguena
ezpeitie phensaturen.

Sataneq ourthoqui hour

Çipriano

535. Çer debru itchaso da haur
hox guitian escapa
içan baquez bethi
eta ez haboro billaisca.

*Retira oro. Isiçe Euphrasa Second Indaleça Tesifon
Theodora Athanasa Jacobe jar azquenaq.*

536. Ene haurraq behar dut
orai hebentiq abiatu
Jerusalemara jouaniq
han pheredicatu.

537. Judiouaeq ezpeitie nahi
gutiq baiçiq sinhexi
Js Ct iça çela
eraixi çelutiq.

538. Ez eta hil oundouan
çelletarat igain çela

ez eta aita eternalaren
saihexian dagouela.

539. Eguia houraq dutut behar
sustengatu Jerusalemen
hartacoz balin badut
ere biçia galduren.

540. Theodora behar duçu
egon Athanasarequi
beste bost discipuliaq
gin aldiz enequi.

Athanasia

541. Ayei eta Jacobe çer
berri tristia duçu emaiten
eta çu gabetariq guq
noula içan behar dugu heben.

542. Infidelaq deiquienian
çerbait contestatçen
nourq guthu favorituren
hayen countre lagunturen.

Jacques

543. Athanasia baduqueçu ni beno
favori handiagoua
bethi dela çien althe
çelietaco gincoua.

*Pott eguin oroq. Athanasia Theodora retina.
Bestiaq oro bellarica eta khanta*

544. Orai jauna bagouatçou
çoure graciarequi
othoi assesti guitçaçu
eta içan gourequi.

545. Urhatsaq ditçagun egu(in)
çoure gloriataco
eta goure obra (guciaq)
ere çoure cerb(utçuco).

546. Gloriaz betheriq (çaude)
aingurien artian
bai eta bethi (içanen)
eternitate luç(ian).

Oro jaiqui. Jacques m.

547. Ene haurraq or(ai hox)
itçhaso ondou(ala drano)
ountçi çounba(it beitugu)
han recontra(tuco).

Passeya. Eçar ountçian

Jacques m.

548. Ene haurraq hau(r duciela)
ountcia orai he(ben)
Alexandriara gut(u)
huneq eramanen.

549. Hanti beiquirate guero
sari Jerusalemera
goure desiren eta
votouen complitçera.

*Sar ountçian. Passeya.
Jacques*

550. Ene hauraq gutian orai
itçhasotiq jalqui berhala
eta lur idorrez jouan
ere Jerusalemera.

Passeya. Jacques m.

551. Ene discipulu maitiaq
haur duciela Jerusalemera
goure salbaçaliaq gouregatiq
ichouri du odola hebe.

Bellarica oro. Jacques m.

552. Remestiatçen çutugu jauna
bidage handian gutuçu favoritu
heben harat ere bethi
othoi lagunt guitçaçu.

Jaiqui oro. Jacques m.

553. Ene haurraq gutian
orai aphur bat retina
bidage handi hountariq landan
aphur bat repausatçera.

Retira oro. Jaiqui Jacques. Bera passeya m.

554. Oh Jerusalemeco populia
handi eta hedatia

- çiequila ororequila dela
Jesusen graçia saintia.
555. Gincouaren seme maitia
aita eternalaq çian igorri
(Maria Virgi)na sacra tiaren sabelian
(natura huma)noua har eraçi.
556. (Profeteq a)nonçatu
eguiasco Messia
(houra da hora gin)couaren semia
(qhurutchian cru)çificatia.
557. (Goure nahiz) salvatu
(qhurutchian odola) itchouri du
(cer obligacionne) aren
(guq hari ezti)rogu.
558. Et(a legue saint)ia
d(eitcen da testam)entu beria
h(ari jaraiqui be)har dugu eta
a(zcar uqhen) fedia.
559. (Jesusen eta haren) apostolieq
(eran dutien gucia)q
(mundu hountan b)jadira
(içaten praticati)aq.
560. (Legue çaharco doc)toraq
(missionia du finitu)
(bena houraq ere) Jesusen precepter
(conformatcen) ahal dutuçu.
561. Hayeq ere bestella
beitie mancatçen
testamentu berriari
ezpadira susmetitçen.
562. Hala aldiz oro guira
Jesusen graçian biçiren
eta hil oundouan haren
gloria goçaturen.
- Retira. Jaiqui Filleta Hermogene Satan. Has Satanaq.*
- Hermogene
563. Behadi ifemuco prinçia
niq ait reconpensaturen
fidelqui eta solidoqui
balin banaiq instruitçen.
564. Beno eradaq çer segretu
deitada eracouxiren
eta çer miraculu eguitemo
dono deitada emanen.
565. Eta hire moyanez mundian
çer jaquitate duqedan
eta cer balentia suberte
eguien ahal dudan.
566. Ene mitilla Filleta ere
desseina berian duq
bera heben beita
orai jaquiten ahal duq.
- Filleta
567. Bai prinçe famatia
hiri nuq susmetitçen
solamente abill eta famatu
mundian banaiq eguiten.
- Satan
568. Bai niq baçitiat bai
jaquitateaq oro guçiaq
eta ene obedient direner
oro eracouxiren çitiat.
569. Ene photere guciez
participant ait eguien
eta escola handiez
ait niq instruituren.
570. Niq ait hi eskolaturen
hiq ere mitilari reçitaturen
eta mundu guçia duçie
admiraturiq eduquiren.
- Bara.*
571. Etçaqutcen çitiat
munduco bellar guçiaq
eta baçaquitçat oro
bai niq hayen verthutiaq.
572. Verthute hetan gaignen medeçieq
etçaquic ez deusere
ideia simple bat baiçiç
bateq ere etzaquie.
- f. 14r
573. Eta hiq badaquieuc
deusere hihaureq beçala

solamente içaten bahiz
ene cerbutchari fidela.

574. Nourq çer eguiten dian
orotan mundu guçian
relevaturen deiçat
nihaureq daquidan guisa berian.
575. Badaquiquec persounen
incantaçen eta çarmatçen
persounen cavalen eta chorien
eritçen eta sendotçen.
576. Eguinen duq miraculu
ene fidel diratienetan gaignen
bai eta nahi badutuq hegastiaq
airian incantaturen.
577. Çer nahi figuratan
ihaur iz eçariren
bai eta nahi bahiz
invisible erendaturen.
578. Horti phensa eçaq hire içateco
eztatoenez aren irous
solamente behar duq
bethi içan coragouz.
579. Eta laguntu ni ere
ene exayer buhurtçen
eta niq ere hiri
orobat derat eguinen.

Has.

580. Jacobe deitcen den bateq
niq orai perseguitçen
ene cerbutcharietariq hanitz
ditadaq gal erasten.
581. Judiouaq çitiat
niq tentaturen
eta hiregana secours
deiat inspiraturen.
582. Orogen artian diaigu behar
bougre houra gal eraçi
eta guero gutuq ounxa
rejouituren algarequi.
583. Eta tho libru haur
houneq ai instruituren

hiq nahi dia secretu
hanitz eracouxiren.

584. Eta duda dianian
ni naiq invocaturen
eta ni nitçaiq
mementouan aguerturen.
585. Alo aren ni hire
eta hi ere ene
hitz emadaq guiradiela
algaren içanen bethiere.
- Hermogena
586. Hitz derat emaiten
hire guiradiela içanen
ahal oro secours
badeitq emaiten.
587. Eta guq galthaçen dugun
segretiaz instruituren
hori deriat orai daniq
deja hitz emaiten.
588. Bai eta lagunturen ait
Jacoberen gal erasten
hirequi batian ouste diat
aisa dugula goithuren.

*Eman esquiaq algarrî eta retina. Jalqui Abital aphez
handia Josiaz Samuel Passeyâ esquerretiq.*

Jalqui Satan m.

589. Alo alo Abital
eta hire scribouak
orai dutucie orai
handi misteriouaq.
590. Jacobe Zebedaren semiaq
legue berri bat deiçie pheredicatçen
Josefen semia cruçificatu houra
Messia çela alegaçen.
591. Affrontus infamu houra
orotçaz bada sinhexia
jouan duq jouan
cacalat goure biçitçia.
592. Legue çaharreco apheçiç
eztuquec ez haboro

- deus irabasteco bederiq
eztuqueçie ez guehiago.
593. Jouan duquec (cien ouhouria)
çien credit gu(cia)
çien erenomia h(andia)
eta erespecta(cionia).
594. Ordu duçie aren
eta iraçar çit(aye)
Jacobe infamu (houra)
gal eraçi eça(cie).
595. Guiçoun abil eta (savant bat Hermogene)
baduçie çien (artian)
deja reputatio(netan)
Jerusalemeco hir(ian).
596. Hari hersa çit(aye)
eta ounxa paca (eçaçeaie)
Jacobe maleros (haren galeraztera)
lagunturen beit(çutie).
- Satan retira. (Jar aphez handia eta haren lagunaç
Jar minça Abiatall).*
597. Jaunaç çer da (haur)
eta çer eran (nahi da)
çerbait berritarçun (handiriç)
hiri hountan badabila.
- f. 14v
598. Gu han ezquiren oren eli batez
dut remarqui uqhen
populia touroustaz
templialat jouaiten.
599. Eta sobera beininçan
precisqui occupatia
hara jouaiteco eztt
uqhen ahal artia.
600. Eta eya çer dabilan
conprenitu duçienez deusere
orai çien daniç
jaquin nahi nuque.
- Josias
601. Bai jauna içañ gutuçu
içañ templan gu ere
baçaquçuçu çer den
igaraften oro ere.
602. Jacobe Zebedaren semia
ari duçie pheredicatçen
relegione eta legue
berri bat publicatçen.
603. Jesus Josephen emastiaren semia
curutchian cruçuficatia
alegatçen diçu çela
eguiazco Messia.
604. Houra dela çioçu
ginco handiaren semia
erreguen erreguia eta
guiçounen salbaçalia.
605. Houra dela Meçia
propheteq anonçatia
eta obserbatu behar dela
hareq establitu leguia.
606. (Legue çaharre)ço apheçaq
(gutialariç a)bolitçen
(bai eta ere balire)
(photereriç gabe) eçarten.
- (Minça Abiatall)
607. (Arren sinhesten) badu
(houra populu) guciaç
(au diable jouan) dira
(oro goure carg)uiaç.
608. (Jouan dira gou)re ouhouriaç
(eta gure ira)baçiaç
(eta hitz batez) erraitera
(oro goure biçit) bidiaç.
609. (Goure bicien ir)abasteco
(behar dugu la)boraritu
(bortialat jouan) arçain
(edo itchassouan) arançaletu.
610. Fripou coqui gueçurti hareq
damu hori deicu causatçen
bere gueçurrez badu
hareq mundia trounpatçen.
611. Profeteq anonçatia içañ baliz
Mariaren semia
phensa içañ ahal çatianeç
curutchian cruçuficatia.

612. Profeteq eran çien beste althe
virgina bateq çela sorthuren
eta virgina çela Josephen emastia
nourq ahal du sinhexiren.

613. Emazte ezcountu bat virgina
hori debrien gueçur handia
gueçur handi horen sinhestia
ezteya ossoqui erhoqueria.

614. Emazte ezcountu senhar diena
halacoua punçela dela
milla milliou biçi joca niroq
houra eguia ezteza.

615. Debru houra behar diaigu
çerbait guisaz gal eraçi
bena behar gunuque ounxa pensatu
eta executatu hobequi.

Samuel

616. Jauna houra hain ounxa
eta subtilqui minço duçu
disputan ezpeitugu
ihoulare goitu.

617. Eta deus houniq içateco
goithu behar liqueçu
eci confusione badugu
galdiaq gutuçu.

618. Bena moyen bat jauna
benturaz niq banaquiqueçu
eya houn çaiqueçunez
nahi neiqueçu proposatu.

619. Hermogena badaquicie
dela philosopho
haren mihia prount subtil
eta presta dela eçinago.

620. Houra gutariq beita
eta goure phartia eduquiten
harez badugu attaçen
ouste dut dugun reusituren.

621. Hareq beitu goithuren
bai eta çedi eraçiren
hala bere isseyaq oro
beitutu auher ucqenen.

f. 15r

Abital

622. Hori houn hartçen dit
behar duçu jouan haregana
bai eta ere othoitu
bertan gin ditan houna.

*Abital Josias retira eisquer Samuel passeya Jalqui
Filleta Hemorgena*

Samuel

623. Jauna salutaçen çutut
aphez handiaren phartez
othoiçen çutu Filletarequi
haren etchera jouaitez.

Hemorgena

624. Jauna placerequi
biaq gutuçu ginen
solamente ouste badugu
cerbutchu derogula eguinen.

Passeya hirouraq. Abital Josiaz jalqui eta jouan.

Hemorgena m.

625. Salutaçen çutugu Abital
jaunaren aphez handia
houna gutuçu çouregana
ukheniq çoure meçia.

626. Eya cer plaçer duçun
jauna jaquitera
eta util balin baguira
çoure cerbutchu erendatçera.

Samuel... Oro jar.


Abital

627. Hounqui gin çiradeyela
ene jaun maitiaq
erranen dereitçiet
ene araincura guçiaq.


628. Ouste beitu erendatcen
ahal deitadaçula cerbutchu
occasione importan batetan
nahi çuntuquet othoitu.

629. Jacobe Zebedearen seme bat
ari duçu hiriaren troublaçen

- eta legue berri baten
templian publicatcen.
630. Maria Josephen
emaztiaren semia
khurutçian beitçen
içan cruçuficatia.
631. Alegatçen du houra çela
veritablequi Messia
gin çela profeteq
gouri anonçatia.
632. Hanbat beitçen bai houra
haregatiq Messia
hala noula niq beitut orai
erhiez hounquiten çelia.
633. Bena hanbat houra sinplequi
eta elleganqui minçatçen
eraiten dutienaq oro beitut
ençuler sinhex eraguiten.
634. Disputan espeiquira capuale
gu haren goitçale
ez eta asqui suptilqui
hari arapostu emalle.
635. Eta cieq beitaquigu hartaco
aldiz houn cinetequiela
nahi çuntuquiegu othoitu
haren confonditcera.
636. Haren countre eguiten ahal
duçuna oro guçia
isseye deçaçien
oro çien photeria.
637. Eta hitz emaiten deçuqu
gorati reconpensatçera
bai eta erregueren khortian cargu
handi bederaren uqheitera.
638. Çien errenomia eta estonua
beitate handiago
bai eta mundu guçiaz
bethi ere estimatuago.
- Has.*
639. Bena behar gutuçu lagundu
frïpou haren gal erasten.
- ossoqui confonditcen
bai etare escrasatçen.
- Hemorgena
640. Ale den beçalaco
imbiçil esquelia
hareq nahi die troublatu
Jerusalemeco hiria.
641. Eta Jerusalemerequi
Judea oro gucia
aprova erasten (dialariq crucificatu)
haren legue fal(xia).
642. O eguru eguru (hareq)
arapostu diçu (ukhenen)
Filletaq eta niq (çouignequa has)
diçuqu houra (goituren).
643. Ecin badugu os(soqui)
disputaz ichil (erasten)
izpiritu iffem(ala diçuqu)
oro brisa era(çiren).
644. Ezpeita ausart(uren haboro)
hitz baten erai(tera)
ez eta hassi dia(n)
projetaren execu(tatcera).
- Filleta m.
645. Recompensa dugunian
houniq esperantcha
ahalaren eguiteco
dugu ordian usaintcha.
- f. 15v
646. Eta ahala oro badugu
oh guq emplegatçen
mundu oro admiraturiq
diçuqu eduquiren.
647. Feit suspreni garriagoriq
eguin guiniroçu
o Jacobe gurequila
ichilliq egoiten ahal duçu.
648. Bortchaz edo amourioz
duçie susmetituren
eta goure agi erastia
ez aldiz çier doluturen.



Alfonso Xa Jakintsua: "Urkatu biztua", *Cantigas de Santa María*. (XIII.m.)



Idem.

Retira esquer apheçaq. Filleta eta Hemorgena passey.

Hemorgena m.

649. Filleta hiq behar duq
Jacobe attaquu berhala
ouste beitu niq ja
ihaur asqui hiçala.

650. Eta encas aldiz
ecin baduq goitçen
ni ajutatcera
bertan nitçaiq ginen.

Filleta

651. Hemorgena banouaçú
ahala dit eguinen
eta beharra balin badut
çutut abertituren.

Hemorgena retira eta Filleta passey. Jalqui Jacobe eta Filleta m.

652. Allo Jacobe cer ariz
affrounteria phensatçen
eta gueçur gaistoz
hiriaren troublatçen.

653. Eta ezpahiz sesatçen
(ore damia) duq eguinen
(authoritate duen guciaq
(exai dutuq) bilhatçen.

654. (Crucificatu) haren motivouaq
(dutilacoç sus)tengatçen
(eta discous elegant eli batez
(spiritu falxi)aq trublatçen.

655. (Eta eztuq) batere
(houra ounxa) eguitia
(eta arracountru) hortariq
(gal diroq hire) bicia.

656. (Edo aithortu) behar duq
(ore falxuqueria)
(comenitu publiqui) crucificatu houra
(houra etçela) Messia.

Jacques m.

657. (Etcela ez) houra
(Isayaç annon)çatia
(giteco dela) orano eta
(etzela ora)no aguertia.

658. Propheten libriaq
badutuçie iracourtçen
eta Messia giniq dela
baduçie dudatçen.

659. Eztaquiçie ez bathere
çer duçien iracourtçen
ez çençu veritablez
deusere comprenitçen.

Filleta

660. A asto handia ouste duca
çu baiçiq eztella abiliq
çer iracourtçen dudan
enthelegatçen dianiq.

661. Hire despit baçaquiat
hiq beno haboro
çer nahi çençuren
ounxa comprenitçeco.

662. Baçaquiat goren eta muthien
eta uxien sendotçen
pharaliticouen hidrapiquen eta
ere ooren solajatçen.

663. Eta behar bada persouen
bai eta animalen
bai eta chorien
airian incantatçen.

664. Hiq ezpehiz eguin
horietariq bathere
eta bester eran behar
eztaquigula deusere.

Jacques

665. Filleta eztuq hambat difiçil
ni benno abillago içatia
bena Js Christetan ezpaduq
eçarten ore fedia

666. Hire abillitateq
eztiqeye hanbat balia
guthieniq ouste dianian
uqhenen duq confusionia.

667. Eran duq baçaquiala
erien sendotçen
bai eta uxier
vistaren emaiten.

668. Medeçi çounbaiteq uzten die
çounbait sendoturiq
bena beste çounbait ere
bai ossoqui exituriq.

669. Çouin houraq oro Js Cten
ahal beittutuque sendotçen
edo nourq ere beitu houra
umilqui invocaçen.

670. Aren houna beita sarri
uxu bat presentaturen
hic isseyä ourxa eta
eçin baduq sendotçen.

Uxia presta.

(670-718 bertsoak Bo-tik hartuak dira, P-n falta direnez)

671. (Eta niq Jesus invoca eta)
(bista baçayo giten)
(Js Mesiatan hala)
(sinheste duca harturen).

(Minça Filleta)

672. (O photereriq bada niq)
(houra sendoren diat)
(besteç ihourq eguitecoz)
(vista erakhariren dicat).

673. (Eta aldiz niq)
(balin badut exitçen)
(enuq beldur besteç ere)
(ihourq sendo daçen).

674. (Erakharraq eraqhar aren)
(eta hiq duq ikhousiren)
(ey niq eztaquidanez)
(vistaren uxier emaiten).

(*Uxia guidariaq eqhar.*

Minça Jacobe)

675. (Eya Filleta arren)
(erremedi eguiocq)
(eta vista eraqhar)
(ahal balin badiçocq).

(*Minça Filleta)*

676. (Erremediouaq etçitiat)
(orai heben chacolan)
(bena eqharten tiat)
(bai houna bertan).

(*Jouan barna eta gin gobalet batetan eqaririq eremedia. Minça Filleta)*

677. (Alo uxia corage)
(ukheq fede osoua)
(eci ni nuq hire sendocequo)
(medeçi eguiazcoua).

678. (Sendoraçi diat lehen ere)
(ehun beno haboro)
(eta segur nuq ene eremediez)
(bai hi ere sendo).

679. (Berecatu behar deitçat)
(hourto hounez beguiaq)
(bena sari behar tuq iqhousi)
(aqueri diren gaiça guçiaq).

(*Bereca beguiaq Ma...Uxia)*

680. (Ayey ayey cer da haur)
(ala erremedi gachtoua)
(cer eqari deitaq beguietan)
(sua ala phoçoua).

681. (Buria eta beguiaq)
(oro diztaq eratçen)
(o bena ez erremedi houneq)
(eni vistariq emanen).

682. (Amens lehen enia)
(miniq bere soffritçen)
(bena min handi houneq niq)
(o bai sarri erhoren).
(*Minça Filleta)*

683. (Chou uxia chou)
(hoberiq bat diat ekharriren)
(hareq beitiq bista emanen)
(eta mina calmaturen).

684. (Ouste nia hori asqui nuquiala)
(bena badiat hobia)
(bertan beitu eguinen)
(hareq operacionia).

(Minça Uxia)
685. (Ez othoi utz afrountur hori)
(deusere eçartera)
(horeq eztu phensaçen besteriq)
(salvu ene erhaitera).
686. (Phensaçten ezpadu ere)
(erhoren ja banai)
(beguietan deusez ere)
(haboro hounquitu banai).

(Minça Jacobe)
687. (Chou ene haura chou behar diq)
(sendo nahi denaq hanich sofritu)
(hanichetan houn eguiten)
(behar die eremedioueq alhatu).
688. (Abil Filleta abil eqharaq)
(erremedi hobiagoua)
(uxia sendoturiq)
(ahal dugun boztarioua).

(*Filleta sar tapizpiala eta ekhar Ma Filleta*)
689. (O uxia houneq)
(ezpahai sendotçen)
(mundu hountan vistariq)
(deuseq eztuye emanen).
690. (Ceren eta hire gaitça)
(beitate incurable)
(deusez ere sendotçia)
(ezpeitateque posible).

(*Bereca harçara*)

(*Minça Uxia*)
691. (Ayey ayey banequia niq)
(erhoren nundiala)
(eçarten baceitan haboro)
(deusere beguiala).
692. (Inposible da imposible)
(min hounen suportaçia)
- (bena oren erdi bat gabe)
(idoquiren deit biçia).

(*Minça Jacobe*)
693. (Chou ene haura chou)
(çerbait moyen duq içanen)
(erremedio horieq)
(ezpeyhaye erhoren).
694. (Filleta hire moyanaq oro)
(arauz emlegatu dutuq)
(ni ere noure aldeti)
